


1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Lehenago momentutik argi geneukan gure gizarteari laguntzeko ideia bat gauzatu nahi genuela. Zehazki, behar talde bati lagundu nahi genion, noizbeinka ahaztuak direnak eta sarritan diskriminatuak direnak. Horien artean bereiz ditzakegu desgaitasuna duten pertsonak, zehaskiitsuak.

Gizarte guztiarentzat zerbitzu bat aurrera eramatea zen gure helburu nagusia, haien eguneroko bizitza errazteko. Horrela eMeBieNe jaio zen. Gure proiektu berria GPS bat barnean hartzen duen giltza bat da, eta sortu dugun aplikazio baten bidez zuzentzen da.



Aplikazioaren bidez, gure giltza non dagoen kontrola dezakegu, eta, hura errazago aurkitzeko, soinu bat aktibatzen da. Erreza ezta?

Lehen azaldu dugun bezala, geure produktua itsuentzat zuzenduta dago, gure aplikazioari esker askoz errazago aurkituko dituzte giltzak.

Nola?

Oso erreza, egin behar duten gauza bakarra aplikazioari hitz egitea da, eta automatikoki hasiko da soinu hori.

←—————→

Aplikazioaren barruan hainbat funtzio egono dira...



MAPA; zure giltzen kokapena ikusi dezakezu, gehienez 5 metro.



SOINUA; bai eskuz bai ahoz aktibatu.

Soinua erraztasuna emateaz gain, itsuentzat diseinatutako espezialitatea da; eguneroko bizitzan gauzak bilatu behar dutelako. Gainera, posible izango da soinu mota aldatzea, eta tonu desberdinen artean aukeratzea



Ez ahaztu!

Birziklatutako produktuekin eginak daude.

Ikusi dugunez gure negozioa bakarra da, ez baitago aurkitu ahal izateko txip batekin giltzak ekoizten dituen beste enpresarik, baina hau ez da guztia...

Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen nola aurkituko dituzte ezin badute entzun? ez kezkatu! Horretarako, azaldu dugun bezala mapa bat izango dute aplikazioan eta bertan giltzak non dauden agertuko zaie.

Gainera haren prezioa ez da oso altua 6,99€koa izango litzateke eta zure lehenengo erosketarekin giltzari bat oparitzen dizugu giltzetan eramateko. Ez itxaron gehiago zure giltza erosi arte!

